



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abuztuaren 2a

94. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Politika komertzialetik eratorritako deskontuak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateak Audenasari egintako konpentsazioari buruzko fiskalizazio-txostena (2020), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Politika komertzialetik eratorritako deskontuak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateak Audenasari eginiko konpentsazioari buruzko fiskalizazio-txostena (2020), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko ekainaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak "Politika komertzialetik eratorritako deskontuak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateak Audenasari eginiko konpentsazioari buruzko fiskalizazio-txostena (2020)" egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea (10-21/CCO-00007 eta 10-21/CCO-00009).

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko ekainaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Politika komertzialetik eratorritako deskontuak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateak Audenasari eginiko konpentsazioari buruzko fiskalizazio-txostena (2020), Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Politika komertzialetik eratorritako deskontuak direla-eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak Audenasari eginiko konpentsazioa (4. or.).
- III. Helburuak eta norainokoa (10. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (11. or.).
  - IV.1. Legeriaren betetzearen fiskalizazio-iritzia (11. or.).
  - IV.2. Auditoretza finantzarioko iritzia (12. or.).
  - IV.3. 2020ko azaroko konpentsazioaren onspenak 2020-2029 epean izan ditzakeen efektuen analisisa (13. or.).
  - IV.4. Amaierako konklusioa eta gomendioak (17. or.).

## I. SARRERA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2021eko apirilaren 19an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganberari fiskalizazio-txosten urgente bat eskatzea, *"autobideko erabiltzaileei aplikatzen zaizkien deskontuak direla-eta Nafarroako Gobernuak AUDENASari fakturak ordaintzean aplikatutako konpentsazio-formulari"* buruzkoa.

Zehazki, eskariak eskatzen du honako alderdi hauek aztertzea:

- *"...Aldaketarik izan ote den enpresa adjudikazio-hartzaileari AP-15 autobideko deskontuak konpentsatzeko adosturiko formularen (emakida-kontratukoaren nahiz hitzarmen ezberdinetakoen) aplikazioan.*

- *Ea Nafarroako Gobernuaren eta AUDENASaren artean sinaturiko hitzarmenak legezkotasunari loturik ote dauden, trafiko-beherakada izanez gero.*

- *Ea Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ematea eta AUDENASari ordaintzea onartu duen aipatu faktura-zenbatekoa legediaren arabera ote den..."*

Bestalde, Nafarroako Parlamentuak, 2021eko maiatzaren 13an eginiko Osoko Bilkuran, fiskalizazio finantzarioari eta legezkotasunari buruzko txosten berezi eta urgentea egtea eskatu zuen, *Nafarroako Gobernuak 2021eko otsailaren 24an harturiko erabakiei buruzkoa*, zeinen bidez ebazten baitzen Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren eta Kontu-hartzailetza Nagusiaren artean sortutako desadostasuna, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak proposatutakoaren bidean; hots, Audenasak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua baiestea. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari zegokion faktura ordain zedila xedatu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15erako zeukan deskontu-politikarekin loturikoa."

- *"Onestea Audenasaren ordezkariak Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua. Agindu horrek 2020ko azaroko likidazioari dagokion faktura ordain zedila xedatu zuen, Nafarroako Gobernuak AP-15erako zeukan deskontu-politika zela eta. Fakturaren zenbatekoa 6.284.728,28 eurokoa zen. Errekurtsua jarri zaion foru aginduan zehaztutako zenbatekoa dagoeneko ordaindu zaionez Audenasari, gainerako zenbatekoa ordaindu behar da; hau da, 5.077.559,88 euro..."*

Lan hori gehitu zitzaion Kontuen Ganberak 2021. urterako onetsi zuen urteko fiskalizazioko programari, eta auditoretzako teknikari batek eta auditore batek osatutako taldeak egin du, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin, 2021eko maiatz eta ekainean.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne: bigarrenean deskribaturik datoz Autopistas de Navarra SARI (aurrerantzean, "Audenasa") Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak (aurrerantzean, NFKA) eginiko deskontuengatiko konpentsazioarekin zerikusia duten alderdi orokorrak; hirugarrenak lan honen helburuak eta norainokoa biltzen ditu; eta laugarrenean erdietsitako konklusio eta gomendioak azaltzen dira.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsonen jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariari.
- Autopistas de Navarra SAKo kudeatzaileari.

Alegaziorik ez da aurkeztu; horrenbestez, txostena behin betikotzat jotzen da.

Eskerrak ematen dizkiegu NFKAko langileei, lan hau egitean emandako laguntzarengatik.

## II. POLITIKA KOMERTZIALETIK ERATORRITAKO DESKONTUAK DIRELA-ETA NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAK AUDENASARI EGINIKO KONPENTSAZIOA

### AUDENASARI EGINIKO DESKONTUENGATIKO KONPENTSAZIOAREN ALDERDI OROKORRAK

2013ko ekainean, Kontuen Ganberak txosten bat egin zuen Audenasak 2003-2012 epean izandako politika komertzialari buruz. Txosten horretan, "Irurtzun-Ebroko autobidearekiko lotunea" bidesaridun AP-15 autobidearen ezaugarri orokorrak aztertu ziren. Horietako muntadunenak aipatuko ditugu, geroztik suertatu diren beste batzuekin batera:

- Autobidea eraiki zen Nafarroako Foru Diputazioak emakida eginez Audenasari, zeina 1973an kapital pribatuz eraturiko sozietatea baita. Emakida dela-eta, obrak eta mantentze-lana emakidadunaren kontu egiten dira, eta hark jasotzen duen ordaina autobidearen erabiltzaileei kobraturiko tarifek osatzen dute. Eragiketa-arriskua emakidadunaren gain ipintzen da.
- 1984an, Audenasaren kapital sozialaren % 50 NFKArena izatera pasa zen, eta 2010ean erabaki zen Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoari atxikia izatea.
- AP-15aren kontserbazio eta ustiapenaren emakida Audenasari eman zitzaizkion 2014ra arte. 1997an, epe hori 2029ra arte luzatu zen.
- Autobideak emakida-araubidean eraiki, kontserbatu eta ustiatzeari buruzko maiatzaren 10eko 8/1972 Legeak aurreikusitakoari jarraikiz, "Gobernuaren delegazioa" deritzon figura dator jasota AP-15aren emakida arautzen duen pleguan, sozietate emakidadunarekin aritzeko organo gisa; halaber jasotzen dira horren eginkizunak ere, zeinen artean baitago autobidearen erabiltzaileei eginiko deskontuak konpentsatze aldera NFKAk emakidadunari egin beharreko ekarpena zehazten duten kalkuluak aztertu, berrikusi eta kontrolatzekoa.

Ganberaren txostenak halaber aztertzen zuen autobidean aplikaturiko deskontuen politika komertziala eta NFKAk ordaindu beharreko konpentsazioa. Hona aipatu azterketatik nabarmentzen ditugun puntuak:

- Erabakitako deskontu-politikaren helburu nagusiak izan ziren kostu-merkatzea ahalbide-tzea autobidearen ohiko erabiltzaileentzat, errepide jakin batzuk zirkulazioz arintzea eta ibilgai-luen autobideratzea sustatzea, batez ere ibilgailu astunena.
- 1999ko maiatzeko hitzarmenean ezartzen denez, NFKAk Audenasari konpentsazioa helaraziko dio, urtero kopuru bat ordaindurik, zeina izanen baita urte bakoitzerako aurreikusitako diru-bilketa teorikoaren eta diru-bilketa errearen arteko aldea bezainbestekoa, formula bati jarraiturik, geroago aldatu egiten dena, alderdiek 2007an iritsitako akordio baten bidez. Gaur egun indarrean dagoen formula adostua, 2009az geroztik aplikatua, honako hau da:

$$RT_n = RT_{n-1} \times (1 + P_n/100) \times (1 + F_2 \times C/100)$$

$RT_n$  = Recaudación teórica del año n

$RT_{n-1}$  = Recaudación teórica del año n-1

$P_n$  = Revisión de tarifas del año n (95% del IPC)

$F_2$  = incremento tráfico corredor en el tramo Tafalla-Pamplona obtenido como suma de la estimación de peaje de Tiebas y el registrador instalado en la variante de Garinoain

$C$  = Coeficiente de incremento de tráfico en la autopista respecto del corredor = 1,50. Este coeficiente se incrementa en cinco centésimas cada cinco años (2004, 2009 y 2014).

- Emakida-kontratua aldatze aldera alderdiek 2007ko maiatzean iritsitako akordioan ezarri zen, besteak beste, konpentsazio-likidazioaren aldia urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abendua-

ren 31ra artekoa izanen zela. Halaber adierazten da hileko fakturek konturako aurrerakinaren izaera izanen dutela, eta abendukoa likidazio-faktura izanen da, urtealdikoa edo amaierakoa izanen dena, eta bertan zehaztuko da ezarritako deskontu-politikaren ondoriozko konpentsazio gisa ordainkizun suertatzen den zenbatekoa.

Halaber ezartzen da ezen, epe bakoitzaren ondoko lehen 15 egunetan, Audenasak kasuko faktura aurkeztuko diola NFKAri, zeina ordainduko baita aplikatzekoa den araudiak aurreikusten dituen epeetan.

- 1973an autobidearen emakidarako kontratua sinatzean, Plan Ekonomiko Finantzario bat onetsi zen (PEF, aurrerantzean), zeinean aurreikusten baitziren emakidaren amaiera arterainoko magnitude ekonomiko nagusiak eta emakidaren bilakaera aurreikusgarria jasotzen baitzen, taxuzko moduan bermatzearen, epe luzeko aurreikuspen orok berezkoa duen ziurgabetasunaz bada ere, emakidaren bideragarritasuna eta oreka ekonomiko-finantzarioaren mantentzea.

Gobernuaren erabaki bidez 1997ko abenduan, 2000ko otsailean, 2007ko ekainean eta 2008ko otsailean emakida-kontraturako onetsitako aldaketetan, PEF berriak onetsi ziren, horietarako arrazoiak izanik, besteak beste, tarifa-beherakada, kontabilitate-irizpideetako aldaketak, egiazko trafiko-mailak eta abar.

2014ko irailean, Administrazio Kontseiluak PEF berri bat onetsi zuen 2014-2029 eperako, gaur egun indarrean dagoena eta urte horretan bertan Gobernuaren azaroko erabaki baten bidez berretsia izan zena.

Erabaki horren bigarren puntuak ezartzen du Audenasak urtero PEFaren eguneraketa bat prestatuko duela, hipotesi edo aldagairik garrantzitsuenen bilakaera errealari erreparatuta eta balizko desbideraketak zehaztuta, eta Nafarroako Gobernuak Audenasan daukan Delegazioari igorriko diola.

2020ko martxoan Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia izendatu zuen urte horretako urtarrean deklaraturako osasun publikoko larrialdia, COVID-19ak eragindakoa. Izan ere, gaitzaren hedapena arrisku bat zen herrialdeetako osasun publikoarentzat, eta nazioarteko erantzun koordinatua eskatzen zuen.

Deklarazio horren ondorioz, alarma-egoera deklaratu zen, eta botere publikoek pertsonen mugikortasunari biziki eragin zioten neurriak erabaki zituzten. Hori dela-eta, autobideko trafikoak ehuneko 22,11ko beherakada izan zuen 2020an, 2019koarekin alderatuta.

PEFaren azken eguneraketa 2021eko maiatzaren 31n onetsi zuen Audenasako Administrazio Kontseiluak, eta bertan jasota daude 2020ko datuak eta 2029ra arteko aurreikuspenak, kontuan izanik ezen trafikoaren portaera eta, horrenbestez, diru-sarrerena ere ezin aurreikusizkoa dela oraindik ere, COVID-19aren pandemiaren efektuak bete-betean pairatzen segitzen dugunez.

Jarraian PEF eguneratu honen adierazle ekonomiko-finantzarioetako batzuk emanen ditugu, alderatuta 2014an 2014-2029 epealdirako hasiera batean aurreikusitakoekin (milaka eurotan):

	2014ko PEF	2020ko PEF eguneratua	2020ko PEFaren aldaketa-portzentajea 2014ko PEFaren aldean
Diru-bilketa teorikoa	869.584	796.743	-8.4
Deskontuak:	751.201	663.368	-11.7
NFKAren konpentsazioa	225.893	239.163	5.8
Kompentsazio-portzentajea deskontuen gain	30	36.1	20
Ustiapeneko emaitza	481.932	466.307	-3,2
EBITDA <sup>1</sup>	719.847	703.848	-2,2
NFKAren diru-fluxuak <sup>2</sup>	109.109	205.383	88,2

<sup>1</sup> EBITDA delakoak (Earnings Before Interests, Taxes, Depreciations and Amortizations) erreferentzia egiten die interes, zerga, balio-galera eta amortizazioen aurretiko irabaziei, eta ustiapen-onura gordintzat jotzen da.

<sup>2</sup> NFKAren diru-fluxuak honela kalkulatu dira: BEZ, PFEZ eta sozietateen gaineko zergagatikoko diru-bilketa + kapital-murrizketa + urteko dibidenduak – deskontuengatikoko konpentsazioa.

Ikusten denez, 2014-2029 epearen osotasunerako, diru-bilketa teorikoak, deskontuek, ustiapen-emaizak eta EBITDAk behera egiten dute 2014an aurreikusitakoaren aldean, nahiz eta NFKAren konpentsazioak eta deskontuen gaineko portzentajeak gora egiten duten.

Bestalde, NFKArentzako diru-fluxuek ehuneko 88ko gorakada dute, horren zergatia izanik, hein handian, hasiera batean 2014an aurreikusi gabe zeuden baina egin diren kapital-murrizketak, zeinak 41,72 milioioak baitira 2017-2021 epean. Murrizketa horiek egin izan ez balira, fluxuen gaineko efektua ehuneko 50eko gehikuntza zatekeen.

Adierazle horiek 2014ko PEFea aurreikusita zegoenaren aldean izandako aldaketa interpretatzeko, beharrezkoa da kontuan hartzea horiek 2019ra arte eta emakidaren gainerakora arte izandako bilakaera, honako koadro honetan erakusten den bezala:

Aldea (%)	Diru-bilketa teorikoa	Kompentsazioa NFKA	Deskontu aplikatuak	Diru-fluxuak NFKA
2014-2019	3,41	15,2	-0,5	329,2
2020-2029	-14,1	1,4	-17,1	49,8
Guztizko aldaketa-portzentajea	-8,4	5,8	-11,7	88,2

Ikus daitekeenez, 2014-2019 epean 2020 PEFe 2014koaren aldean izandako aldaketa, COVID-19aren osasun-krisia gertatu aurretik, ezberdina da; kasuren batean, are zentzua (positiboa edo negatiboa) aldatzen da. Hala, adibidez, Audenasarentzako konpentsazioaren kasuan, 2014-2019 epean ehuneko 15eko gorakada izan zuen 2014ko PEFearekiko, trafiko-aurreikuspenak gainditu egin baitziren; alta, 2020-2029 epealdirako, gorakada hori ehuneko 1,4koa besterik ez da.

#### AUDENASARENTZAKO 2020ko DESKONTU-KONPENTSAZIOA

2020ko urtarril eta otsaileko fakturen aurkezpenean aipatutako formula aplikatu zen, Audenasarentzako behin-behineko deskontu-kompentsazioa 2,55 milioioa izanik.

2020ko martxo-ekaina epean, eta nazioarteko pandemiatzat kalifikatu ondoren COVID-19ak eragindako osasun publikoaren gaineko larrialdi-egoera eta mugikortasun-murriztapeneko neurriak hartu ondoren, trafikoaren beherakada oso nabarmena gertatu zen, 2019ko hilabete berekin alderatuta (formularen aplikazioan erabilitako datua), jarraian erakusten den bezala:

	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina
2019ko hilabetearekiko aldaketaren %	-37	-69	-48	-21

Adierazitako formularen trafiko-beherakadaren portzentaje horiek aplikatuz suertatzen zen ezen negatiboa zela NFKA Audenasari ordaindu beharreko kantitatea, eta emaitza hori ilogikoa da, erreparatzen badiogu alderdiek 2007ko hitzarmenean adostutakoaren helburuari.

Egoera horren aurrean, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta Audenasak hitzartu zuten bertan behera uztea hilabete horiei zegokien fakturazioa, NFKAri baizik ez fakturatzea hileroko likidazioetan balio positiboak suertatzen zirenean, eta urte bukaerako egoeraren analisi xehakituagoa egitea, hori izaki, azken batean, urteko likidaziorako erabilitako datua.

Lantalde bat eratu zen Nafarroako Gobernuaren ordezkariarekin eta Audenasako langileekin, zeinak adostasunez ondorioztatu baitzuten ezen, trafiko-beherakada kontuan izanik, 1,65 baliodun C koefizientea aplikatzea ez zela egokia, eta horregatik proposatzen zen 1 balioa erabiltzea C koefizienterako.

Audenasak 2020ko azaroaren 30 datako faktura egin zuen, kontzeptu gisa zeukana azaroko konpentsazioaren ordainketa eta 2020ko urtarrila-urria epealdiaren erregularizazioa, zeinean C koefizientearen balioa 1 den, hitzarmeneko formulari buruzko interpretazio bat eginik, sozietate horretako Administrazio Kontseiluak lantaldearen proposamenez erabaki zuen bezalaxe.

2020ko abenduaren 23an, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak txosten batean proposatu zuen 2020ko azaroko faktura ordaintzea bidesari-deskontuen konpentsazioagatik, trafiko-

beherakada argudiotzat hartuta C koefizienteari 1 balioa aplikatzea oinarritzeko. Horrek esan nahi zuen Audenasari 6,28 milioi ordaintzea.

2020ko abenduaren 24an, fiskalizaziora aurkeztu zen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren foru agindu baterako proposamen bat, zeinaren bidez agintzen baitzen Audenasari 6,28 milioi ordaintzea, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak proposatzen zuen bezala.

2020ko abenduaren 30ean, Kontu-hartzailletza Orokorrek eragozpen-txosten etengarri bat egin zuen aurreko foru agindurako proposamena zela-eta, honako hau azalduz "...irizpide-aldaketa bat aplikatzen zaio AP-15aren emakidadunaren diru-bilketa teorikoa zehazteko formularen interpretazioari, horretarako motibazio logiko eta juridikorik egon gabe; horrenbestez, ez dago frogatuta Audenasak eskubidea duenik proposaturiko ordainketa egin dakion, eta kalte egiten zaio Ogasun Publikoari...".

2020ko abenduaren 30ean bertan, Gobernuaren ordezkariak 2020ko azaroko faktura ordaintzeko proposamen aldatu bat izapidetu zuen, 1,21 milioiko zenbatekoa zeukana; kopuru hori C koefizienteari 1,65 balioa aplikatuz suertatzen da.

Ordainketa-proposamen aldatu hori kontuan harturik eta Kontu-hartzailletza Orokorren eragozpena onarturik, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak abenduaren 31ko 41E/2020 Foru Agindua onetsi zuen, zeinaren bidez agintzen baitzen ordain zedila 2020ko azaroko faktura, 1,21 milioiko zenbatekoa zeukana.

2021eko otsailaren 4an, Audenasak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen aurreko foru aginduen aurka, non bere argudioak agertzen baititu. Besteak beste, honako hauek:

*"...errealitate horrek modu nabari eta eztabaiaezinean utzi du agerian orain arte inor jabeturik ez zegoen gauza bat; hots, hein honetako beherakadetan formula aplikatzea ilogikoa ez ezik -hori ere bai- zeharo ezinezkoa eta jasanezina ere badela. 2008tik 2012ra bitarteko epean izandakoak bezalako beherakada txikiak ez zuten formula estresatu, ez eta erakutsi ere efektu hain galgarri hau ere; baina ezin da gauza bera esan 2020ko beherakaden ondoren, hain gogorrek ezen begi-bistan utzi baitute formularen aplikazioa ez dagoela hitzarmenaren zentzuari doitua ez eta, horrenbestez, alderdien nahiari ere, eta ezin erabilizko gertatu da hain zirkunstantzia-aldaketa paregabe eta pisuzko batean..."*

*"...Bereziki aintzat hartu beharrekoa da, lehenik eta behin, Administrazio batek denboran zehar duen irizpidea ez dela monolitikoa; alda daiteke, eta horren froga dugu Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35. artikulua erabateko argitasunez dioela hau: "Arrazoitu egin behar dira, egitateak eta zuzenbideko oinarriak labor adieraziz: ...c) Lehenagoko jarduketetan erabilitako irizpidearekin edo organo aholku-emaldeen emandako irizpidearekin bat ez datozen egintzak.*

*Beraz, Administrazioak zilegi du lehenagoko irizpide batekin bat ez etortzea. Arrazoiak agertuz jokatu beharko du noski, baina jadanik aurreko zuzenbide-oinarrian ezin argiago ikusi dugu motibazio hori badagoela, eta irizpide-aldaketa zeharo justifikaturik dagoela inoiz ez bezalako zirkunstantzia-suertatze batean, parada eman duena ustekabeki ohartu eta frogatzeko ezen konpentsazio-kalkulurako formulak, orain arte interpretatu den horretan, emaitza absurdo, oker eta jasanezinetara eramaten duela. Horrek behartzen du moldatze- edo samurtze-xedeetarako interpretazio-aldaketa bat egitera, zeinak, gainera, orain arte azaldutako gutzia gutxi balitz bezala, oinarria aurkitzen baitu 1999ko maiatzean formalizaturiko hitzarmen indardunaren 7. klausulan.*

*...Laburbilduta, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak bide eta bitarteko juridiko aproposak ditu formularen gaur egungo aplikazioak frogatuki sortzen duen distorsio itzela, ezinezkoa eta irrazionala onbideratzeko, dela interpretazio-irizpide berri bat aplikatuz, dela AUDE-NASArekin hitzarmenaren aldakuntza formal adostuz, AP-15 autobidean deskontu-politika komertzial berri bat aplikatzea helburu.*

*Bidezko da, beraz, helegite hau baietsi eta eskaturiko konpentsazioa ordaintzea: 6.284.728,28 euro..."*

2021eko otsailaren 10ean, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak Audenasaren gora jotzeko helegiteari buruzko txosten bat eman zuen, zeinean, besteak beste, honako baieztapen hauek egiten baitira:

*"...Ordezkarik hau bat dator emakidadunak gora jotzeko helegitean defendaturiko oinarriarekin, zeina baita 1999ko hitzarmena tankeratua izan zela emakidadunari diru-sarreraren galerarengatik konpentsazioa emateko, ikuspegia betiere izanik ezen deskontu-politikak gehitu egiten zuela autobideko trafikoa eta, horrenbestez, F2 eta C formulako eguneratze-faktoreak gehikuntza gisa definituak izatea.*

*Alabaina, formularen interpretazio logiko eta arteza, haren terminoen berezko zentzuaren arabera, halako moduz egin behar da non aintzat hartuko baitira, formularen literalasuna ez ezik, baita testuingurua, aurrekariak, errealtatea eta aplikatze-uneko inguruabarrak ere, nagusiki hitzarmenaren espirituari eta helburuari erreparatuta. Alderdiak bat datoz 1999an aurreikusgai zela 2020an pandemiaren ondorioz suertaturikoa bezalako egoera bat...*

*...Egia da 2008-2013 urte-tartean indarreko urte-koefizientea aplikatu zela, errepide horretako trafikoan aldaketa negatiboak suertatu ziren arren. Baina egia izan ere bada, gora jotzeko helegitean adierazten den bezala, urte haietan ez zela gertatu 2020koa bezalako distortsiorik, eta interpretazio-irizpide hori ez zuen ezein alderdik auzitan jarri. Oraingoan, ordea, bai. Ez da harritzekoa anomalia hori aurreko urteetan detektatu ez izana, zeren eta, 2008an, errepideko trafikoak behera egin zueneko lehenbizikoan, diru-bilketa teorikoaren zenbatekoak gora egin baitzuen, eta horrela gertatu zen 2011n ere...*

*...Nagusiki hitzarmenaren espirituari eta helburuari helduta, zuzentasunez jotzen da, F2 negatibo suertatzen denean, Ck hartu beharreko balioa 1 izatea, era horretan efektu neutroa baitauka diru-sarrera teorikoen formularen emaitzan...*

*...Ez da zuzentzat jotzen Kontu-hartzaitzak eginiko interpretazioa, zeinaren ustez  $C = 1,65$  koefizientearen aplikazioari eutsi behar baitzaio errepideko trafikoak beherakadak izaten dituenean. Izan ere, ez du 1999an adosturiko formularen literalasuna aintzat hartzen, eta sinaturiko hitzarmenaren espirituari eta helburuari ere ez die erreparatzen. Eta hain zuzen interpretazio hori da martxo, apiril eta maiatzean konpentsazioaren kalkularen emaitzak izandako distorsio garrantzitsuak eragin dituenena."*

Nafarroako Gobernuaren ordezkariaren txostenak azkenean ondorioztatzen du egokiro arrazoi gertatzen duela konpentsazio-formula aplikatzeko interpretazio-irizpideak 1 baliodun C koefizientea aintzat hartzea, eta bidezkoa dela Audenasak aurkezturiko gora jotzeko errekurtsoa baita.

Halaber, 2021eko otsailaren 10ean, Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuko idazkari nagusi teknikoak txosten juridiko bat eman zuen gora jotzeko errekurtsoari buruz, eta hartan honako zertzelada hauek zehaztu zituen, besteak beste:

*"...Besterik ez bada ere, ematen du arriskutsua dela eragozpen etengarria oinarrituta egotea irizpide-aldaketaren ustezko arrazoitze-ez batean, eta hori guztia eramatea "betebeharraren aitortpenaren frogagirien irregulartasun larriak, edo behar adina ez frogatzea hartzaitzaren eskubidea" espresioaren abarora; eta ez bakarrik aurkartzaitzaleak azaldutakoarengatik, baizik eta Gobernuak AUDENASan daukan ordezkariak egindako txostenengatik, non espliketzen baita formula aplikatzearen jatorria, Administrazio Kontseiluko negoziazioak, horretarako sorturiko lantaldea, diru-sarreraren 2007tik aurrerako analisiak eta C koefizientearen aplikazioa, oreka ekonomiko-finantzarioari buruzko hitzarmenaren 7. klausularen balizko aplikazioa, C koefizientea =1 dela interpretatzearen logika. Arrazoitze horretan sakondu egiten da aipagai dugun errekurtsoari erantzuteko txostenean.*

*Ez dirudi Kontu-hartzaile Nagusiak azaldutakoa ilegaltasun gaindiezin edo konponezin (errekurtso-egilearen hitzetan) bat denik, eragozpen etengarri baten adierazpena erakartzen dutenetakoa. Arlo honi aplikatzekoa den arauditik (bai 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa, bai jada aipaturiko 31/2010 Foru Dekretua) ondorioztatzen da ezen, eragozpenak adierazi ahal izateko, ordenamenduaren urraketa bat egon behar dela, behar adinako zuztarra duena -irregulartasun larriak, izapiderik egin ez izanak egintzaren deuseztasuna erakartzea eta hala, prozedura etetea-. Ez dirudi hori denik kasua, zeren eta hemen eztabaidatzen dena ea arrazoitze behar bestekoa izan ote den lehenagoko jarduketetako irizpi-*



*dea aldatzeko; eta, gorago esplikatua ildotik, ondoriozta daiteke Gobernuak emakidadunean daukan ordezkariak bapoz justifikatu duela baliatutako irizpidea, horretarako eskaera egin izan zaien bakoitzean...".*

Idazkari nagusi teknikoaren txostena amaitzen da esanez aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioa baietsi beharrekoa dela eta, horrenbestez, hasiera batean proposaturiko zenbateko gutzia ordaindu behar dela, 6,28 milioikoa.

2021eko otsailaren 19an, Kontu-hartzailetza Nagusiak fiskalizazio-txostena eman zuen Aude-nasak aurkezturiko gora jotzeko errekurtsioa baiesten duen Gobernu-erabakiaren proposamenari buruz, eta bertan honako zertzelada hauek adierazten dira, besteak beste:

*"... C zuzenketa-koefiziente horrek, bat baino handiagoa izaki, errepideko trafiko-aldaketak diru-bilketa teorikoan daukan efektua areagotzen du, hala gorakada-kasuetan nola beherakada-kasuetan; efektua, alabaina, konpentsatu egiten da denboran zehar.*

*Ekitaldi bateko diru-bilketa teorikoa aurrekoan izandakoari loturik zehazten denez, ekitaldi baterako eginiko formula-aldaketak ez du kasuko urteko emaitzan soilik eragiten, baizik eta aurrerantzeko urteetakoan ere. Hori dela-eta, logikoa da formula 1999an hitzartu zenez geroztik formula horri eman izan zaien interpretazioa, ulerturik ezen, formularen gorakada seinatzen denean, aldaketa esan nahi duela, positiboa nahiz negatiboa, eta modu berean aplikatuta trafikoaren gorakada nahiz beherakada (2008tik 2013ra arte) izan den urteetan; izan ere, bestela, diru-bilketa teorikoaren eboluzioa trafikoaren errealitate-tetik aldenduko litzateke, trafiko horren gorakadekin handitzeagatik, baina ez haren beherakadekin.*

*Beraz, gauza bat litzateke enpresa emakidadunari konpentsazioa ematea 7/2020 Foru Legeko 2.5 artikulua onduko araberako galera batengatik, betiere betekizun eskatuak betez gero, eta beste bat, oso bestelakoa, da ekitaldi zehatz bati eginiko formula-aplikaziotik egitea aldaketa, emakidadun biziaren osorako izanen litzuzkeen ondorioekin.*

*Horregatik, Kontu-hartzailetza Nagusi honen aburuz, prozedura orotik at enpresa errekurtsio-gileak inposatu nahi duen interpretazioak alde handiz gaintzen du kasuko kontratu-klausulen interpretazio hedakor bat litzatekeena, eta haien hitzez-hitzezkotasunetik askoz harago doa, kontratuko klausulen aldaketa petoa egiten baitu.*

*Azkenik, inolako justifikaziorik gabea da C koefizientearen 1,65eko balio ezarria ekitaldi zehatz honetan bat balioarekin ordezte, eta ez beste edozein balioarekin, gero formula hasiera batean aurreikusitako bezala aplikatzeari berriro heldurik...".*

Kontu-hartzailetza Nagusiak amaitzen du ondorioztatuz ezen gora jotzeko errekurtsioa baiesten duen Gobernuaren erabaki-proposamenetik eratorritako espediente-kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraitzeak kalte ekonomikoak ekar diezazkiokeela Nafarroako Ogasun Publikoari.

2021eko otsailaren 23an, Nafarroako Gobernuaren ordezkariak eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko idazkari nagusi teknikoak txosten bana eman zuten Kontu-hartzailetza Nagusiak lehenago eginiko fiskalizazio-txostenari buruz, harekiko desadostasuna adierazirik.

2021eko otsailaren 24an bi Gobernu-erabaki onetsi ziren: bataren bidez, departamentuak proposaturiko ildotik ebatzen zen Kontu-hartzailetza Nagusiaren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren artean zegoen desadostasuna, 2020ko azaroko fakturaren Audenasarentzako ordainketari buruzkoa; besteak baietsi egiten du Audenasaren gora jotzeko errekurtsioa, eta agintzen du ordain dadila 2020ko azaroko faktura, 6,28 milioikoa (kontuan izanik 1,21 milioi jadanik ordaindu zitzaizkiola, gainerako 5,07 milioien ordainketa zegoen egiteke).

### III. HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Parlamentutik jasotako eskaera kontuan hartuta, honako hauek izan dira lan honen helburuak:

- Gobernuaren 2021eko otsailaren 24ko erabakien gaineko fiskalizazioa egitea, legezkoa-suna betetzeari buruzkoa, NFKAren deskontu-konpentsazioko espedientearen gainekoa, Aude-nasarekiko politika komertziala dela-eta, 2020ko azaroari dagokionez. Guztizko zenbatekoak 6,28 milioi egiten du.

- Aurreko espedientearen fiskalizazio finantzarioa egitea.

- Aztertzea zer balizko efektu izan ditzakeen 2020ko azaroan 6,28 milioiko konpentsazioa onesteak, hurrengo urteei begira, 2029an emakida amaitu arte, 2020an eguneraturiko PEFaren aurreikuspenak betez gero.

Honako hau izan da egin dugun lanaren norainokoa:

- Audenasarentzako 2008-2021 epeko deskontu-konpentsazioarekin zerikusia duten aurre-kontu-partidak.

- Audenasarentzako deskontu-konpentsazioagatiko 2020ko azaroko fakturaren onespeneren espedientea.

- Administrazio Kontseiluk erabakitako eta 2014ko gobernu-erabakiz onetsitako PEFa, 2014-2029 epeari buruzkoa, eta 2019 eta 2020 urteetarako eginiko eguneraketak.

- NFKAren eta Audenasaren arteko harremana arautzen duen arau-esparrua.

Kontuen Ganberak halaber ohartarazi nahi du ezen 2020-2029 eperako balizko efektuei buruz eginiko analisisa azken PEF eguneratuan jasotako datuen arabera egin dela<sup>3</sup>. Suertaturiko kopuruak aurreikusiriko datu horietatik eratorriak dira, eta balioztapenak dira, bete gabeko gerta daitezkeenak; dena den, gure ustez posibilitate hori ez litzateke gure lanarentzat mugapen izanen, eta ez litzuke funtsean aldatuko gure konklusioak.

<sup>3</sup>PEFa eguneratzen da datuak euro konstanteetan lortu gabe (berrezarpen-inbertsioen kasuan izan ezik), adierazle ekonomiko-finantzario ezberdinak balioztatzeke behar adinakotzat irizten zaiolako KPIaren aintzatespenari.

#### **IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK**

##### **NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ERANTZUKIZUNA**

Nafarroako Gobernuaren delegatua da NFKAk Audenasari autobidearen erabiltzaileei egin zaizkien deskontuengatik eman beharreko konpentsazioa zenbatesten duten kalkuluak aztertu, berrikusi eta kontrolatzearen arduraduna, bai eta kasuko fakturek araudia betetzen dutela bermatzearena.

Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuko Idazkaritza Nagusi Teknikoa da AP-15aren emakidaren kontratua kudeatzen duen unitatea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentua da beharrezkotzat jotzen dituen barne kontroleko sistemak ezartzeko erantzukizuna duena, bermatzekoak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aurreko paragrafoan xedatuta dagoena betetzen duela.

##### **NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA**

Gure erantzukizuna da iritzia ematea deskontu-kompentsazioagatik Audenasari 2020ko azaroko faktura ordaintzea onesteko jarraitu den prozeduraren legezkotasunari buruz, eta erabilitako irizpideen abiarazpenak hurrengo urteetan izanen dituen balizko efektuak aztertzea.

Horretarako, gure fiskalizazio-lana egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoek dituzten oinarriko fiskalizazio-printzipioei jarraituz; zehazkiago, ISSAI-ES 200 eta 400 arauari jarraituz, fiskalizazio finantzarioaren eta legeria betetzei buruzko fiskalizazioaren gainekoak, hurrenez hurren. Printzipio horiek exijitzen dute etikako eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioa planifika eta egin dezagula ere, segurtasun egokia lortze aldera, eginiko jarduketak eta finantzen egoera-orrietan islatutako informazioa alderdi adierazgarri guztietan arau indardunen arabera-koak izateaz.

Fiskalizazioa egiteak behartzen du prozedura batzuk aplikatzera, auditoretza-ebidentzia bat lortze aldera, kasu honetan 2020ko azaroko fakturan jasotako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta kasuko araudian ezarritako alderdi muntadunen betetzei buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera-koak dira, horren barne dela arriskuen balorazioa, bai iruzurraren edo oker baten ondorioz fakturan akats materialak egotetik eratorrienak, bai legeriaren urraketa-erak. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak kontuan hartzen du barne kontrola, muntadun dena entitateak gastua kasuko aurrekontu-partidan egozteko eta legeria betetzen dela bermatzeko, inguruabarren arabera-ko auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

Auditoretza batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta aztertutako aurrekontu-partidaren aurkezpenaren ebaluazioa ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoretza-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure iritzia eta konklusioak funtsatzeko.

##### **IV.1. LEGERIAREN BETETZEAREN FISKALIZAZIO-IRITZIA**

###### **Legezkotasun-iritziaren oinarria**

Administrazioak iraganean hartu dituen erabakiei buruz bere egintzen zentzua aldatu ahal izatea esanbidez jasota agertzen da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 35. artikuluan.

Arau horrek administrazioari arrazoiketa berezi bat eskatzen dio, erabaki hori bestelakoa izatea justifikatuko duena; hala, kasu berdinen aurrean aurreikustekoa da soluzio bera ematea, inguruabarrak berberak izanez gero. Kasu honetan, nahiz eta lehenago ere gertatuak iren trafikoko-aldaketa negatiboak, eta C koefizientea hitzarmenaren arabera zegokion balioarekin aplikatu bazen ere, 2020an aurreko urtearekiko trafiko-beherakada askoz ere nabariagoa da trafiko-jaitsiera izandako beste urte batzuetan gertaturikoa baino, honako taula honetan erakusten den bezala:

	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2020
Trafiko-beherakadaren %	-0,88	-3,61	-0,63	-1,07	-8,17	-3,26	-22,11

Audenasak 2021eko otsailean gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ondoren, Nafarroako Gobernuak kontratu-interpretazioa egin zuen, prerrogatiba hori esanbidez jasota egonik Kontratu Publiko buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeko 34. eta 142. artikuluetan.

Nahiz eta interpretazioa kontratazio-organoak gauzaturiko egintza diskrezional bat den, araudiak ezarritako prozedurari jarraikiz egin beharrekoa da; zehazki, 142. artikulua dio interpretazioa espediente batean dokumentatuko dela, non agertuko baitira egoki diren txosten teknikoak eta juridikoak.

Txosten honen II. epigrafean adierazi dugun bezala, txosten horiek egon badaude, eta kontratu-interpretazioa eskatzen duen errekurtsua baiestearen aldekoak dira. Nafarroako Gobernuak errekurtsu hori baiesteko 2021eko otsailaren 24an hartutako erabakiaren motibazioa dira.

#### **Legeriaren betetzeari buruzko iritzia**

Gure ustez, gora jotzeko errekurtsua baietsi eta Kontu-hartzaile Nagusiaren eragozpena ebazteko jarraitutako prozedura, zeinak berekin baitzekarren 2020ko azaroko fakturako 6,28 milioiak ordaintzea, aplikatzekoa den araudiaren arabera da, ezertan galarazi gabe Nafarroako Kontseiluak gai honetaz duen iritzia<sup>4</sup>.

#### **Beste oharpen batzuk, emandako iritzian eraginik ez dutenak**

Kontuen Ganberak ulertzen du ezen Audenasak gora jotzeko errekurtsua aurkeztearen ondorioz Nafarroako Gobernuak interpretazio-boterea egikaritze hori egin beharko zela faktura 2020ko abenduan aurkeztu zen unean.

#### **IV.2. AUDITORETZA FINANTZARIOKO IRITZIA**

Audenasaren gora jotzeko errekurtsuaren baiespena kontuan harturik, 2020ko azaroan aurkezturiko fakturako datuak eta kalkuluak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak onetsitako horretakoak, zuzenak dira.

Txosten hau idazteko unean, fakturak kontabilizatuta dirau, baina ordainkizun segitzen dute 5,07 milioik.

<sup>4</sup>2021eko apirilaren 20an, Parlamentuak irizpen bat eskatu zion Nafarroako Kontseiluari, Audenasak 41E/2020 Foru Aginduaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua zela-eta 2021eko otsailaren 24an Gobernuak hartutako erabakiaren legezotasunari buruzkoa eta, zuzenbidearen kontrakoa izanez gero, egonen liratekeen ondorioei eta egin beharreko iza-pideei buruzkoa.

### IV.3. 2020ko AZAROKO KONPENSASIZIOAREN ONESPENAK 2020-2029 EPEAN IZAN DITZA-KEEN EFEKTUEN ANALISIA

Aintzat harturik konpentsazioari aplikatzeko formularen osagaiak (diru-bilketa teorikoa – diru-bilketa erreala), C koefizienteari 1 edo 1,65 balioa aplikatzeak esan nahi du 2020rako diru-bilketa teoriko desberdin bat lortzea, honako koadro honetan erakusten den bezala:

	Diru-bilketa teorikoa 2019	Akt. 2020. tarifa. (KPIaren % 95)	Errepideko trafiko-gorakada	Autobideko C koefizientea = 1,65	2020ko diru-bilketa teorikoa C=1,65	Autobideko C koefizientea = 1	2020ko diru-bilketa teorikoa C=1
Urtarrila	3.437.129	1,00095	% 1,13	1,65	0,01865	1	% 1,13
Otsaila	3.520.115	1,00095	% 1,57	1,65	0,02591	1	% 1,57
Martxoa	3.900.956	1,00095	-% 37,21	1,65	-0,61397	1	-% 37,21
Apirila	4.180.451	1,00095	-% 68,79	1,65	-1,13504	1	-% 68,79
Maiatza	3.948.302	1,00095	-% 47,59	1,65	-0,78524	1	-% 47,59
Ekaina	3.913.957	1,00095	-% 21,39	1,65	-0,35294	1	-% 21,39
Uztaila	4.796.386	1,00095	-% 13,96	1,65	-0,23034	1	-% 13,96
Abuztua	4.579.623	1,00095	-% 11,83	1,65	-0,19520	1	-% 11,83
Iraila	3.918.449	1,00095	-% 8,74	1,65	-0,14421	1	-% 8,74
Urria	4.365.241	1,00095	-% 17,80	1,65	-0,29370	1	-% 17,80
Azaroa	4.129.203	1,00095	-% 19,45	1,65	-0,32093	1	-% 19,45
Abendua	3.974.117	1,00095	-% 15,71	1,65	-0,25922	1	-% 15,71
<b>Guztira</b>	<b>48.663.929</b>	<b>1,00095</b>	<b>-% 22,11</b>	<b>1,65</b>	<b>-0,3648</b>	<b>1</b>	<b>-% 22,11</b>

Ikusten denez, 2020ko diru-bilketa teorikoa, 1 balioa aintzat harturik C koefizientearentzat, 38,04 milioikoa da; Ck 1,65 balioa hartzen badu, ordea, zenbateko hori 31,02 milioira jaisten da.

Alde hain nabarmen horiek ikusita, nahiz eta 2020ko azaroko fakturako datuak eta kalkuluak zuzenak diren, formulako C koefizientearentzat 1 balioa erabiliz eginiko kontratu-interpretazioak efektuak dauzka ondoko urteetan, harik eta emakida 2029an amaitu arte.

Abiapuntu harturik aurreko koadroan bildutako 2020ko diru-bilketa teorikoaren datuak, lortuak Ck 1 edo 1,65 balioa hartzearen ikuspegitik, kalkulatu dugu zenbaki bakoitzak zer efektu izanen lukeen NFKAk Audenasari eginen liokeen konpentsazioan eta horren adierazle ekonomiko-finantzarioetan, 2020ko datuekin eguneraturiko azken PEFeko aurreikuspenak betetzearen kasuan.

Jarraian erakusten dugu NFKAk 2020-2029 epean Audenasari deskontuengatik egin beharko liokeen konpentsazioan gertatuko litzatekeen efektua, aintzat harturik aurreko diru-bilketa teorikoaren kopuruak, 2020rako eguneraturiko azken PEFaren arabera aurreikusitako datuak (C berdin 1) eta C koefizienteari 1,65 balioa aplikatuz suertatuko zena:

Urtea	NFKAren konpentsazioa		Konpentsazioen aldea
	C = 1, 2020an	C = 1,65, 2020an	
2020	14.532.289	7.512.729	7.019.550
2021	13.055.946	5.019.799	8.036.148
2022	14.063.685	5.407.631	8.656.054
2023	14.922.003	5.737.638	9.184.365
2024	15.851.170	6.156.972	9.694.198
2025	16.534.094	6.357.601	10.176.493
2026	17.403.688	6.691.637	10.712.052
2027	18.320.038	7.044.243	11.275.795
2028	19.460.423	7.558.698	11.901.724
2029	10.149.790	3.902.867	6.246.923
<b>Guztira, 2020-2029</b>	<b>154.293.116</b>	<b>61.389.814</b>	<b>92.903.301</b>

NFKAk Audenasari politika komertzialetik eratorritako deskontuengatik eginen liokeen guztizko konpentsazioan sortuko litzatekeen aldea, 2020an C koefizientearentzat 1 balioa edo 1,65

balioa aintzat hartzearen artekoa, 92,90 milioikoa da. Azaldu dugun bezala, alde hori baldintzatu dauka C koefizientearen balio bakoitzerako lortzen den 2020ko diru-bilketa teorikoak.

Bestalde, gaur egun indarrean dagoen PEFa, 2014an onetsia eta urtero eguneratua, prestatzen da modu itxurosoan bermatzearen, epe luzerako aurreikuspen orok berezkoa duen ziurgabetasunarekin, emakidaren bideragarritasuna eta oreka ekonomiko-finantzarioaren mantentzea. Horrela, 1999ko hitzarmenaren 7. klausulak honako hau ezartzen du: "*...Baldin eta etorkizunean akordio honen aplikazioak eragin negatiboa badu Audenasaren plan ekonomiko-finantzarioan, Nafarroako Gobernuak egoki diren neurri guztiak hartuko ditu emakidaren oreka ekonomiko-finantzarioari eusteko*".


2020ra eguneraturiko PEFaren aurreikuspenak beteko balira, C koefizientearentzat aintzat harturiko bi aukerek 2014-2029 epean Audenasaren adierazle ekonomiko-finantzario nagusietan izanen luketen inpaktua (milaka eurotan) honako hau litzateke:

	PEF, 2014	C = 1, 2020an		C = 1,65, 2020an	
		2020ko PEF eguneratua	Aldea (%), 2020ko PEF / 2014ko PEF	2020ko PEF eguneratua	Aldea (%), 2014ko PEFarekiko
Diru-bilketa teorikoa	869.584	796.743	-8,4	703.747	-19,1
Deskontuak	751.201	663.368	-11,7	663.368	-11,7
NFKAren konpentsazioa	225.893	239.163	5,9	146.168	-35,3
Kompentsazio-portzentajea deskontuen gain	30	36	19,9	22	-26,7
Ustiapen-emaitza	481.932	466.307	-3,2	373.221	-22,6
EBITDA	719.847	703.848	-2,2	610.852	-15,1

Aurreko taula aztertuta, honako alderdi hauek azpimarratuko ditugu:

- Diru-bilketa teorikoa, 2020ko PEFeko datuekin eguneratua, 2014an aurreikusitakoa baino ehuneko 8,4 baxuagoa da; baldin Ck 1,65 balioa hartu izan balu 2020an, diru-bilketa ehuneko 19,1 baxuagoa izanen zen 2014an aurreikusitakoa baino. Jarraian, alde horiek grafikoki azaltzen dira:


### Diru-bilketa teorikoa



- NFKaren epealdiko konpentsazioa, 2020rako eguneraturiko PEFaren arabera, 2014ko PEFean aurreikusitako baino ehuneko 5,9 handiagoa da, zenbateko hori 2014-2029 epealdiaren osotasunerako kalkulaturik baitago. Horrela, 2020an izandako trafiko-beherakada mardularen aurreko eperako, konpentsazio hori ehuneko 15,20 handiagoa da 2014ko PEFean aurreikusitakoa baino, eta 2020-2029 epealdiari egotzitako gorakada ehuneko 1,4koa baizik ez litzateke izanen.

Baldin eta C koefizienteak 1,65 balioa hartu balu 2020. urtean, aurreikusitako guztizko konpentsazioa ehuneko 35,3 baxuagoa izanen zen 2014ko PEFean aurreikusitakoa baino.

Hurrengo orrialdeko grafikoak erakusten ditu C koefizienteari 1 balioa nahiz 1,65 balioa aplikatzearen aukerak, 2014ko PEFarekiko.




Bai ustiapen-emaitzak bai EBITDAk antzeko portaera agertzen dute; aurreikusitako beherakada, 2020ko datuekin eginiko PEF-eguneraketaren arabera, ehuneko 3,2 eta 2,2koak dira, 2014ko PEFarekiko.


2020an 1,65 balioa aplikatu izan balitz, ustiapen-emaitzaren eta EBITDAren 2014ko PEFarekiko beherakada aurreikusia ehuneko 22,6koa eta 15,1koa izanen zen, hurrenez hurren.

Grafikoki, honela irudika daiteke bi adierazle horien bilakaera:

## USTIAPEN-EMAITZA



## EBITDA



Laburbilduz, C koefizienteari 1 edo 1,65 balioa aplikatuz lorturiko diru-bilketa teorikoak nabarmenki eragiten die bai NFKAk Audenasari eginen dion konpentsazioari, bai emakidadunaren adierazle ekonomiko-finantzario nagusiei.

Aurkezturiko datuak lortu dira PEFaren aurreikuspenak beteko direlako suposiziopean. Kalkulu horiekiko desbideraketarik gertatuz gero, bai konpentsazioaren izandako aldea bai adierazle ekonomiko-finantzarioen gaineko eragina ildo berekoak lirateke; hortaz, gure konklusio globalak ez lirateke funtsean ukiturik gertatuko.



#### IV.4. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

AP-15 autobidea Nafarroako Foru Diputazioaren emakida bitartez eraiki zen, Audenasa izanda emakidadun enpresa. 1999ko maiatzeko hitzarmenean deskontu-politika bat ezarri zen, zeinak aurreikusten baitzuen NFKAk konpentsazio ekonomikoa ematea Audenasari, horretarako formula bat erabiliz, xede nagusizat harturik autobidearen ohiko erabiltzaileei kostu-merkatzea ahalbidetzea, errepide jakin batzuk zirkulazioz arintzea eta ibilgailuen autobideratzea sustatzea.

Formula hori emakidadunari konpentsazioa emateko tankeratu zen, ikuspegia izanik deskontu-politikak zirkulazioa areagotuko zuela, bi eguneratze-faktore ezarririk. Formula hori bere horretantxe aplikatu izan da are trafiko-beherakada egon zen urteetan ere, beherakada horiek ez baitziren behar bezain pisutsutzat jo.

2020an, COVID-19aren ondoriozko krisi sanitarioak trafikoaren beherakada deigarria erakarri zuen, urtearen osotasunean ehuneko 22koa izatera iritsi zena. Testuinguru hori kontuan harturik, Audenasak aurkeztu zuen fakturan C koefizienteari aplikatu zion balioa hitzarmenean ezarritakoaz bestelakoa izan zen, sozietatearen Administrazio Kontseiluak erabakitakoaren arabera.

Ganbera honen iritzia da gora jotzeko helegitea aurkeztu ondoren jorraturiko prozedura, zeinak kontratu-interpretazio bat egitea ekarri baitzuen eta Audenasari 2020ko azaroko 6,28 milioiko faktura ordaintzea onetsi baitzuen, bat datorrela aplikatzeko den araudiarekin, nahiz eta jokatibide egokia izan interpretazio hori faktura 2020ko abenduan aurkeztu zen unean egin izana.

Kontratuaz eginiko interpretazioak dakar 2020rako 38,04 milioiko diru-bilketa teorikoa lortzen dela, eta ez 31,02 milioikoa, C koefizienteari 1,65 balioa aplikatzen segitzetik eratorriko zena. Hori horrela, nabarmenki baldintzaturik suertatzen da NFKAk Audenasari emakidaren bukaerara arte falta diren urteetan eginen diren konpentsazioa; eta, era berean, emakidadunaren adierazle ekonomiko-finantzarioak ukiturik gertatzen dira.

2020ra eguneraturiko PEFaren aurreikuspenak betetzearen kasu hipotetikoan, NFKAk Audenasari 2020-2029 epealdirako eman beharreko konpentsazio kalkulatu 92,90 milioi gehiagokoa izanen litzateke gora jotzeko helegitea baiestearen ondorioz, zeinak eragiten baitzuen C koefizienteari 1 balioa aplikatzea, 1,65 balioa aplikatzearen eskutik suertatuko litzatekeena baino.

Bestalde, Audenasaren adierazle ekonomiko-finantzarioek positibo izaten segituko lukete betiere, baina haren oreka ekonomiko-finantzarioaren gaineko eragin negatiboa handiagoa izanen litzateke C koefizienteari 1,65 balioa aplikatuz gero, 1 balioa aplikatzearen aukeraren aldean. Horrela, adibidez, ustiapen-emaizta 481,92 milioitik 373,22 milioira jaitsiko litzateke  $C=1,65$  izanez gero (ehuneko 23ko beherakada), konparaturik  $C=1$  izanda gertatuko litzatekeen ehuneko 3ko beherakadarekin, non ustiapen-emaizta 466,31 milioikoa izanen bailitzateke, aurreikusitako 481,92koarekin alderatuta. Zertzelada horiek ekar lezakete NFKAk eta/edo Audenasak zenbait neurri hartzea.

Egin dugun lanean iritsi ditugun konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Alda bedi hitzarmena, ez dadin berori interpretatzen ibili beharrik egon ezohiko zirkuntantziak gertatzen diren kasuetan, formula bitarteko aproposa izan dadin egokiro betea izateko.*
- *Eragin ekonomikoari buruzko analisi xehakaturia egin bedi erabakirik hartu aurretik.*
- *Ordain bitez 2020ko azaroari dagokion faktura eta hurrengoak.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta eman da, bera izanik horretarako lanaren arduraduna.

Iruñean, 2021eko ekainaren 21ean

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga





